

1.UNITATE DIDAKTIKOA: Energia tailerra			
INPLIKATUTAKO ARLOAK: Kultura zientifikoa eta biologia			
GAIA: Energiaren erabilera eta mendekotasuna.	MAILA: DBH3	SAIO KOPURUA: 3 -Lehenengoa Txingudiko Zerbitzuetako hezitzailearen eskutik. -Bigarrena ikastetxean egin ditzaketan aldaketen hausnarketa egin. -Hirugarrena aldaketa horiek burutu.	
IKAS-EGOERAREN MARKOA			
Testuingurua: Gaur egun edozer ekiteko, sortzeko edota garraiatzeko energia beharrezkoa da. Energiarekiko dugun behar horrek gainontzeko herrialdeekiko mendekotasun ekonomiko zein materiala izatera bultzatzen gaitu, eta era berean energia eskari handi horrek ingurumen inpaktuak dakartza.			
Abiapuntua: Etxean argiaren botoiari eman eta guk argia izateko, lehendabizi lehengairen bat erauzi behar da, ondoren garraiatu, transformatu eta bukatzeko erabili egiten da. Energia ez da momentu bat, prozesu bat baizik. Nondik datoz baliabideak? Zein energia mota erabiltzen ditugu? Ze ingurumen ondorio ditu energiaren beharrak?		Azken ekoizpena: Norberak duen energia kontsumoaz jabetu eta hori murriztearen garrantziaz kontzientzia hartu. Egiteko prest egongo liratekeen ekintzen zerrenda egin eta egiteko konpromezua hartu.	
PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIOA			
Aldaketa klimatikoa errealitate bat da. Ez dago atzera bueltarik, baina, gure ekintzek definituko dute etorkizunean nolako larritasuna izatera iritsiko den. Inoiz ez da berandu ohiturak aldatu eta jokabide jasangarriak hartzen hasteko.			
Funtsezko kompetentziak: STEM eta HK			
Deskriptore operatiboak	Kompetentzia espezifikoa	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
STEM5. Ingurumena babesteko zientifikoki oinarritutako ekintzei ekiten die, eta etika- eta segurtasun-printzipioak aplikatzen ditu ingurune hurbila modu jasangarrian eraldatzeko proiektuak egitean, haren eragin globala baloratuz eta kontsumo arduratsua praktikatzuz. HK4. Jarduera lokal eta globalen arteko interdependentzia, ekodependentzia eta interkonexioko harreman sistemikoak barne hartzen ditu, eta modu kontzientean eta motibatuan hartzen du bizimodu iraunkorra eta ekosozialki arduratsua.	Kultura zientifikoa 5. Gizarte-intereseko arazoei irizpide zientifikoekin heltzea, horiei irtenbideak kolaborazioan emanaz, garapen iraunkorarekin bateragarriak izango diren ohitura eta erabaki pertsonal arduratsua sustatzeko eta hartzeko. Biologia 5. Ekintza jakin batzuek ingurumenean eta osasunean dituzten ondorioak aztertzea, biologiaren eta Lurraren zientzien funtsetan oinarrituz, garapen iraunkorarekin bateragarriak diren eta osasun indibiduala eta kolektiboa mantentzea eta hobetzea ahalbidetzen duten ohitura arduratsua sustatzeko eta hartzeko.	Kultura zientifikoa 5.2. Garapen iraunkorarekin eta ezagutza eta arrazoibide zientifikoekin bateragarriak izango diren ekimenak eta ohiturak sustatzea. 5.4. Ekintza jakin batzuek ingurumenean eta osasunean dituzten ondorioei buruzko erabaki arduratsua hartzea, eskura dagoen informazioa eta beren ezagutza zientifikoak erabiliz. Biologia 5.1 Eremu geografiko batean gerta daitezkeen arrisku naturalak eta giza ekintza jakin batzuek bultzatutakoak identifikatzea.	4. multzoa. Ingurumen-inpaktua, aurrerapen teknologikoak. -Energia berriztagarriak eta energia berdeak. -Klima aldaketa: kausak eta ondorioak. Planetaren etorkizuna. Herritarren erantzukizuna.
HELBURU DIDAKTIKOA			
1. 2. (...)			
METODOLOGIA			

Printzipioak	Antolakuntza
	Baliabideak
EBALUAZIOA	
Ebaluazio prozesua:	
Ebaluazio adierazleak:	
1. 2. (...)	
Ebaluazio modalitatea:	Ebaluazio tresnak: